
**Putting Purpose into Practice:
The Economics of Mutuality**

(Helburua gauzatzuz: mutualitatearen ekonomia)

Oxford University
Press, 2021



*“MONDRAGON:
erresilientziari eustea
estrategia kooperatiboen
bitartez”.*

EGILEAK: JUSTINE ESTA ELLIS, ALASTAIR COLIN-JONES ETA IBON ZUGASTI.

Putting Purpose into Practice: The Economics of Mutuality

(Helburua gauzatzuz: mutualitatearen ekonomia)

Oxford University
Press, 2021

MONDRAGON, pertsonak eta pertsonentzat sortua.

Aita José María Arizmendarreta apaizak bere bizilekuan langile-kooperatiba txiki bat sortu zuenean, nekez imajinatuko zuen proiektu apal hura negozio global bihurtuko zenik. 1959. urtean sortu zuten MONDRAGON sozietate kooperatiboen talde bat da gaur egun, zeinak 260tik gora konpainia eta filial baititu 35 herrialdetan, nahiz eta oraindik ere sustriak Euskadin dituen. Taldeak 14.000 milioi dolar inguruko irabaziak ditu, eta 75.000 langile baino gehiago mundu osoan, hainbat sektoretan (finantzak, produkzioa, salmentak eta aholkularitza).

MONDRAGON, taldearen hitzetan, **“pertsonak eta pertsonentzat sortua”** da, eta helburu dauka **“gizartean oparotasuna sortzea negozio-garapenaren eta enplegu-sorreraren bidez”**. Taldearen indarraren iturri dira, batetik, gauzatzen dituen jarduera sorta zabala eta, bestetik, langileen garapen profesionalari eta teknologiaren ikerketari ematen dien garrantzia. Prestakuntza- eta berrikuntza-ekintzak finantzatzen ditu, eta 15 ikerketa- eta garapen-zentro ditu. Inbertsio horren emaitza dira 460tik gora patente-talde.

MONDRAGON taldearen egiturari buruzko aurreko ikerlanek agerian jarri dituzte kooperatiben jarduerarekin lotutako aukerak eta erronkak. Ikerlan honek, aldiz, mutualitatearen eta erresilientziaren arteko erlazioa aztertuko du MONDRAGON taldearen funtzionamenduan.

Erresilientzia –baldintza ekonomiko txarretan enpleguari eta hazkuntzari eusteko enpresen gaitasuntzat ulertua– gutxi balioesten den enpresen funtzionamenduaren alderdi bat da.

[Ikusi artikulu osoa >](#)